



Henrike  
Knörr  
Borràs

1947-2008

BIDeGILEAK

Egilea:

**Garikoitz Knörr**



# HENRIKE KNÖRR BORRÀS

(1947-2008)

## Gizon jakintsua, gizon ona

2008ko apirilaren 30ean itzali zitzaigun, 61 urte baizik ez zituela. Biharamunean, «kultura-gizona», «gizon jakintsua» eta, batez ere, «gizon ona» esapideak errepikatzen ziren egunkari eta albistegietan. Ez da erraza Henrike Knörren bitzita labor baina oparoa orrialde gutxitan biltzea. Bere unerik emankorrenean eraman zuen Heriok berekin; hala ere, artikuluz artikulua, hitzaldiz hitzaldi, etenik gabeko lanaz, azarna sakon eta emankorra utzi du gure

artean. Euskal Herriko kultura-erakunde garrantzitsuenetako kide, maisu eta irakasle —eta, oroz gain, ikasle beti—, ikertzaile, idazle, hizlari, Koldo Mitxelena-ren lankide eta miresle, Arabako unibertsitate-campusen aitzindari, Sancho el Sabio Fundazioaren sustatzaile, euskaldun berri eta euskaltzainburuorde, langile nekaezin... Bernardo Atxagak esan zuen bezala, «herri batek noizean behin baino ematen ez duen pertsona horietako bat» izan zen Henrike Knörr.



# Lehen urratsak

Betiko adiskideekin

## HAURTZAROA

Henrike Knörr Borràs 1947ko martxoaren 2an sortu zen, Tarragonan. XIX. mendean bigarren erdian iritsi zen lehen knörrtarra —Roman Knörr Streiff— Alemaniatik Gasteiza. La Esperanza garagardo-fabrika sortu zuen, geroagoko Gaseosas El As etxearen eta, azkenik, Kas freskagarrien ernamuina izango zena; beraz, Gasteizko knörrtarren laugarren belaunaldikoa genuen Henrike. Hamabi anai-arrebatatik (Román, José Miguel, Xabier, Natxo, Henrike bera, Gorka, Teresa, Karlos, Joseba, Jon, Ferran eta Roberto) bosgarrena izan zen. Aita, Roman Knörr Elorza, gasteiztarra zuen, eta,

1936ko gerra piztu zelarik, armadan sartzeko «aholkatu» zioten, familiak Tomas Zumarraga dohatsuaren kalean zuen garagardotegia itxi ez zezaten. Horra zergatik jaiotzen zen Henrike Tarragonan, haren aita hango ospitale militarreko zuzendari zela. Ama, Teresa Borràs, erizain zebilen erietxe hartan. Tarragonatik Algecirasera aldatu zen familia, eta, azkenik, 1954an, Gasteiza. Zazpi urtetatik Arabako hiriburu izan zuen Henrikek etxe: Domingo Beltran eta Tomas Zumarraga dohatsuaren kaleetan bizi izan zen lehenik, Eharin gero, eta Txagorritxu auzoan azkenik. Bada anekdota bitxi bat, haren anai-arrebek gogoan dutena: Enrique Orive gasteiztar zezenketariak, behin, adarkada



Henrikeren jaiotza

batek utziriko orbaina erakutsi zion Henrike txikiari; handik aurrera, toreatzailea izan nahi zuela esan zuen, denbora batez, gure bidegileak. Jakina da ez zuela bide hartatik jarraitu; hala ere, duela gutxi arte bigantxetara joan ohi zen Gasteizko jaietan, eta ez ikusle soil, parte-hartzaile baizik! Txikitako amets betegabearen oihartzuna ote?

## IKASKETAK

Gasteizen, Korazonisten ikastetxean ibili eta gero, 1958an apaizgaitegian sartu zen. Izan ere, Henrikeren amonak biloba apaiz bat izan nahi zuen; haren anaia Natxo sartu zen aurrena, baita laster irten ere, eta Henrikek hartu zituen haren



Familia osoa. 11 anaia eta arreba bat

sotana eta lekukoa. Hala, bada, lehenengo maila Guardiako (Araba) prezeptorian egin zuen —garai hartan norik esango zuen berak erakutsiko zuela Biasteri ez zela gaztelaniazko *Laguardiaren* euskal izena, *Viñaspre*rena baizik!—, eta hurrengo hirurak, berriz, Gasteizen.

Nota onak lortzen zituen, «oso ongi» eta «bikain» artekoak, bereziki latinean, gaztelanian eta geografian. Laugarren maila bukatu, eta apaizgaitegia utzi zuen. Apaiztu ez bazen ere, «berniza» gelditu zitzaiola esan omen zuen norbaitek. Agnostikotzat definitzen zuen bere burua, baina berebiziko garrantzia ematen zion erlijio-kultura izateari. Fakultatean, Biblia irakurtzeko eskatzen zien, «mesedez eta faborez», bere ikasleei.



Algecirasen, eskolan (ezkerretik hasita: Henrike, Natxo eta Xabier)

Gasteizko San Josef ikastetxean egin zuen batxilergoa. Bukatu bezain laster, Frantziara joan zen, 1965eko udako oporraldian, frantsesa ikastera. Unibertsitate-aurrekoa (PREU), berriz, Marianistetan egin zuen. Filosofia ikasten hasi zen gero: lehen urtea Donostiako EUTGn



Gaztetan

egin zuen; bigarrena, berriz, Salamancan, eta beste laurak Madrilen. Garai hartan egin zituen bizi osorako adiskide minetarikoko asko: Fede Aranburu, Manu Barandiaran, Mikel Peciña eta Álvaro Moreno Bergaretxe, besteak beste. Henrikek berak kontaktatzen zuenez, Morenok eta berak kontaktu asko zituzten Madrilen, asko irakurtzen zuten, eta asko eztabaidatu ere... Larunbatero-larunbatero, «huts egin gabe», Mario Camus zine-zuzendariaren etxera joaten ziren bazkaltzera, Morenoren osaba baitzen.

1981ean lizentziatu zen, Filosofia eta Letretan, Filosofia Hutsa zeritzan atalean, Madrilgo Complutense Unibertsitatean, Alfred N. Whitehead filosofoaren epistemologia gai zuen Memoria batekin.



Ikasle-jai batean, Gasteizen



Harrieten hiztegiaren gaineko tesia

Euskal Filologiako Doktore titulua, berriaz, 1987an lortu zuen, Maurice Harrieten (1814-1904) hiztegi argitaragabearen gaineko tesiaz, Koldo Mitxelena-ren zuzendaritzapean.

## SUSTRAIAK

Henrikek beti izan zituen presente bere familiaren beste bi sustrai nagusiak: Alemania eta Katalunia.

1968ko udan Alemaniara jo zuen, bere aurrekoen aztarnak ezagutu eta, bidenabar, hango hizkuntza ikasteko. Biziki maite zuen Alemania. Bete gabe utzi zuen amestetariko bat, hain zuzen ere, ikasturte bat herrialde hartan irakasle ematea izan zen.



2007ko abuztuan (ezker-eskuin: Eneko, Iruri, Txari, Henrike eta Garikoitz)

Behin, 1980ko hamarkadan, hango unibertsitate bateko irakurle-postu baterako aurkeztu zuen bere burua. Ez zioten lana eman; ordurako curriculum zabala zuen, eta norbaiti lekua kenduko ote zion beldur ziren, omen. Lau urterik behin, hango eta hemengo knörrtarrek bat egiten dute, behin Alemanian, behin Gasteizen, eta Henrike zen bilera haien sustatzaile eta antolatzaileetariko bat. Alemana, beraz, bere kasa ikasi zuen —haren aitak galdua baitzuen jada—, baita ongi ikasi ere. Aleman euskalarien (Humboldt, Schuchardt...) lanetara haien jatorrizko hizkuntzan hurbiltzeko baliatuko zuen, baita itzulpenak egiteko ere. Esate baterako, euskaratik ale-



Henrikeren  
egunerokoak eta  
kaier famatuak

manerako itzulpenen bat egin zuen, eta, adibidez, *Hannoren herensugetxo*a berak euskaratu zuen alemanetik, 1995ean.

«Duela hogeita hameka urte argitu zinduten zure aita amek, Tarragona itsas hegian. Gasteiztarra zen zure aita eta Mediter aldeko ur epelak dituzu amarengandik.» Hitz eder horiez laburbildu zuen Jose Maria Satrustegi zenak, orain dela beste hogeita hamaika urte, Henrikeren munduratzeara. Ama, Teresa Borràs Gisbert, Gandesakoa zuen, Kataluniako Terra Alta eskualdekoa. Urtean behin edo bitan joan ohi zen Kataluniara, eta seme-alabak txikiak zirenean ia hilabete iragaten zuen familiak Cambrilsen. Katalana menderatzera iritsi zen, eta, esate baterako, *Avui* eta *Serra d'Or* aldizkarietan zenbait aipamen eta artikulua idatzi zituen, eta Pompeu Fabra sinposioan euskara batuari buruzko txostena argitaratu zuen, katalanez.

Ez zuen, beraz, bere erro katalana ahan-tzi, alderantziz: bizitza osoan zehar lan-du eta uztartu zituen bere bi nortasun nagusiak. Aipagarria da, esate baterako, 1977an *Argia* aldizkarian (arteana *Zeruko Argia* baitzeritzon) Daniel Ibargoiti ezizenez argitaratu zuen «Kataluinako berri» elkarrizketa; edo, hogeitsu urte geroago, katalanaren, galizieraren eta euskararen akademietako ordezkariak Valentzian bildu zirelarik, katalanez eta euskaraz eman zuen hitzaldia; edo 2004an Andorrako Euskal Etxean eman zuena; edo...

Károly Morvay hungariar hizkuntzalari eta euskara-irakasleak, Perpinyàko irrat-i batean katalanez eginiko elkarrizketan, Henrike «l'home del sí» zela esan zuen, hots, «baiezkoaren gizona». Eskuzabala baitzen Henrike, bere gauzetarako denborarik ez zuenean ere besteri laguntzeko prest beti.





# Hizkuntzalari

Hamaika hitzaldi eman zituen mundu osoan

## IRAKASLE

Gazte hasi zen gure bidegilea irakasle. 1970ean, euskarazko eskolak eman zituen Gasteizen, soldadutzara joan arte. Arakan eta Burgosen egin zuen soldadutza (urte hartan zendu zitzaion aita, irailaren 18an, eta min izan zuen beti, garaiz iritsi ez zelako). Hala ere, han zazpi bat hilabete zeramatzala, okulistak esan zion ez zuela zertan zerbitzu militarra egin, dioptria gehiegi zituela, eta etxera bidali zuten.

Unibertsitate-ikasketak buruturik, 1971-72 ikasturtean, Gasteizko Ramiro de Maeztu institutuan aritu zen frantsesa irakasten, sei hilabetez, propaganda banatzeagatik

atxilotu zuten arte. Bi hilabetez egon zen preso Martutenen.

Lehenago ere atxilotu izan zuten, 1965ean, Álvaro Morenorekin batera, maiatzaren 1ean, Donostian. Orduan, 25.000 pezeta-ko isuna ezarri zieten. Bigarren atxiloketa hark, 1972koak, ordea, kartzelara eramango zuen hurrengo urtean. Lehentxeago, martxoan, Txari Santiago ezagutu zuen, haren emazte maitea izango zena, Aiara-ekiniko kultura-txango batean, eta irailan, berriz, Gernikako Seber Altube ikastolan hasi zen lanean. Baina 1973an, epaia atera, eta urtebete eta erdiko espetxe-zigorra ezarri zioten. Gasteizko kartzela zaharrean egon zen lehenik (espetxea Bake



Gernikan, ikastolako irakasleekin

kalean zegoela azpimarratzen zuen, irribarrez). Espetxeko atean, ordea, senar-emaztegai gazteak elkarrengandik banantzera behartzen zituen une samin hartan, zera esan zioten Henrikeri: ez zela egun hartan sartu behar, eta handik bi egunera itzultzeko. Halakoa ere bazen Henrike. Behin kartzelan, emaztegaiak ezin izan zuen bisitatu, harik eta apaiz batek ezkontzeko asmoa zutela baieztatu zuen arte. Gero, Langraizko espetxe berrira eraman zuten. Kartzelan, erizain aritzeaz gain (odola ematean zorabiatzen zen arren), asko irakurri, itzulpenak egin, eta frantsesa eta euskara irakasten zien presoeci.

Gainera, hizketaldi luzeak omen zituen espetxezainekin (bazen Don Pablo bat, Melchor izeneko beste bat, eta gazte bat): Henrikek pozik kontaktzen zuen haietariko



Ezkontza, 1974/05/25


bat lanbide hura utzi, eta Zuzenbidea ikastera bairatu zuela. Beste batek *vis-à-vis* bat eman zien, bere lanpostua jokoan jarritz.

Ezkongaialdia espetxe-bisitetan pasa ondoren, askatasuna lortu eta gutxira Eharira ezkondu zen Henrike, 1974ko maiatzaren 25ean. Eztei-bidaian ezin izan zuten muga zeharkatu, pasaporteak kendu baitzioten (Henrikeren polizia-fitxak «intellectual peligroso» zioen, alegia, intelektual arriskutsua). Urte hartan berean hasi zen Gasteizko Olabide ikastolan lanean.

1977ko irailean, 1.500 ikasle euskalduntzeko eskolak antolatu zituen, 70 irakasle ordaindurekin, Gasteizen, eta urte berean

hasi zen Arabako Unibertsitate Ikastetxean (CUAn). Henrikek berak honela eman zuen une haren berri: «Euskal Herrian ia ez genuen goi-mailako irakaskuntza publikorik. Eta Humanitateen alorrean basamortua zen, basamortu larria. Baina, Marcel Achard-ek idatzi zuen bezala, gure patua zori hutsez aurkitzen dugu beti. Arabako Diputazioak Euskararen katedra bat sortu zuen Unibertsitate Ikastetxean 1977an, eta Koldo Mitxelena ohiz kanpoko katedradun izendatu. Denbora laburraren ondoren, Mitxelenak eskatu zidan eskolen parte batez ardura nendin. 30 urte nituen, bada, Unibersitate mailako nire lehen eskola eman nuenean. Unibertsitate Ikastetxe hartan Mitxelena irakasleak frantsesez *cours libre* bat deitzen dena edo zena eskaini zuen 1977-1978 ikasturtean, arratsez, euskararen historiarren gainean, arrakasta politarekin».

Euskal Herriko Unibertsitateko Filologia eta Geografia-Historien Fakultatean (egungo Letren Fakultatean) irakasle zen 1978az geroztik, hots, Fakultatea sortu zenetik. Besteak beste, Euskal testuak, Euskal onomastika eta Euskal kultura ikasgaiez ardu-



Janzki akademikoan

ratzen zen. 1995az geroztik, gainera, Euskal Filologiako katedraduna zen.

Andres Urrutia euskaltzainburuak hauxe idatzi zuen Henrike irakasleari buruz: «Irakasle bezala ere zorrotza izatearen fama zuen Knörrek. Euskal Filologiako ikasketetan gaintitzen zailenetakoa zen *Euskal testuak* irakasgaia, berak ematen zuen irakasgaietako bat. Morfema baten jatorriaren gaineko azalpenetik harago, ikaslearen heziketa osoak arduratzen zuen irakaslea».

Euskal Filologia Sailean, zuzendari- eta idazkari-karguak bete zituen; Unibertsitatean, gainera, Fakultateko idazkaria



Euskal Jai batean

izan zen, baita Arabako campuseko lehen errektoreordea ere, Goyo Monreal errektore zelarik, 1981etik 1984ra bitartean.

2009ko maiatzean omenaldia egin zioten Henrikeri bere Fakultatean.

## EUSKARA ETA EUSKALTZAINDIA

Euskaldun berria genuen Henrike. Txikitant, Gasteiza heldu eta gutxira ikasi zuen euskarazko lehen kantua, nafar fraide bategen erakutsirik. Hala ere, zenbait urte igaro behar ziren oraindik, harengan euskara-gosea piztu arte. Honela azaldu zuen berak une hura: «Ederki gogoratzen dut Debako euskal jai hura, 1965ekoa. Kantu eta dantzekiko giro alai hark zirrara handia eragin zidan. Mezatan banatu zituzten esku-orriek begiratu, eta haien esanahia ulertzen ahalegintzen nintzen».

Jose Maria Satrustegi zenak ederki eman zuen, 1978an, Henrikeren euskara-ikasketen berri: «Frantsesaren ondotik, eta alemana baino lehen ekin zion euskara ikas-teari, bere kontuz eta bakarka, 1965-66 ikastaroan. Bazituen, beraz, ia hemeretzi urte euskalduntzen hasi orduko [...] Gogotsu eta sakonki ikasi zuen gure hizkuntza. Salamankan egon zen urtean, bi ilabetez jarraitu zuen euskarazko eskolatarara joaten, ez bait zuten bi ilabete baizik iraundu. 1969an, Madrilgo ikastaroa bukatzean, berrogei eguneko euskal ikastaldia egin zuen Urretxun, gastuentzat diru piska bat lortzeko hiru astebete ostatu serbitzuan egon ondorean. Barne egoeran egindako ikastaldi horri zor diola gehienik, aitortzen du berak». Azken euskara-ikastaroa baserrian egin zuen, 1970ean. Urte hartan, hilabete batez egon zen mutil Ataunen, Barandiaranen sortetxean, lo Sarako etxean egiten zuela. Oroipen onak zituen Henrikek Ataungo egonaldi hartaz. Nola aritzen zen belar-segan, edo kandelaren argipean irakurtzen... Eta zein goiz jaikiarazten zuen Aita Barandiaranek. Hori ere ongi ikasi zuen, gizon goiztiarra baitzen Henrike.

«Kartzelatik irten eta gutxira —idatzi zuen Henrikek—, 1974an, zerbait erabakigarria gertatu zen. Hondarribiko hondartzan nengoen, eta nire inguruan ez nuen euskarazko hitzik ere entzuten. Orduan erabaki sendoa hartu nuen: zerbait egin behar nuen gure hizkuntzaren alde.»

1975ean euskaltzain urgazle izendatu zuten eta, bi urte geroago, 29 urte zituela, euskaltzain oso, Antonio Arrueren orde. Arabako bigarren euskaltzain osoa izan zen Henrike, Olabide izan baitzen lehena. 1978ko San Prudentzio egunean egin zuen sarrera-hitzaldia. Hitzaldi hartan, esker ona agertu zien «euskara neregatzen alde edo molde lagundu nauten guztiei. Eta espreski aipatuko ditut hemen J. M. Barandiaran apaiz jauna eta haren ilobak, *Perunexabarra* deitzen den bere sortetxean etxeko hartu nindutelako. Orobat Indusiko (Dima) Klaudio Puxana zena, hain gazterik hila, eta haren alarguna gogarazi nahi ditut».

Karia hartara, Jean-Louis Davant zuberotar euskaltzainak bertso hunkigarriak eskaini zizkion, Henrikeren heriotzan



Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldian, 1978an

—30 urte geroago, doi-doia— *Herria* astekarian berriz agertuak.

Erakunde hartan kargu ugari bete zituen (beste inork baino gehiago, ziur aski), ardura handikoak tartean: diruzain («lau urte esanguratsutan», Lizundiaren hitzetan), idazkari eta, 1996tik 2005era bitartean, euskaltzainburuorde. Handik aurrera, Iker sailburu. Horrez gain, Jagon sailburu ere izan zen. Bera Onomastika batzordeburu zela (sortu zenetik —hots, 1984tik— 2001era), abian jarri zen *Onomasticon Vasconiae* bilduma (argitaraturiko azken alea, Ángeles Líbanorekin batera prestatua, ezin izan zuen kalean ikusi, 2008ko uztailean agertu baitzen), eta alor horretako jarduerak nabarmen ugaritu ziren (ikerketak, irizpenak...). Bestalde, Euskaltzaindiaren Arabako ordezkaria izan zen, Olabide hil zenetik (1942) lehenbizikoa; tarteka (Henrike buruorde zelarik), Patxi Goenagak eta



Barandiaranekin kobazuloan

Manu Ruiz Urrestarazuk bete zuten kargu hori. Azkue Bibliotekako batzordekide ere izan zen.

Gaztelaniaren Espainiako Akademiaren lexikografia-mintegiari eta National Endowment for the Humanities erakundeari ere laguntza eman zien.

2005ean, Euskaltzaindiak Cervantes Institutuarekin lankidetzaren hitzarmena sinatu zuenean, gure bidegilea izendatu zuten Akademiaren ordezkari, Institutu horrek kanpoan antolatzen dituen ekitaldietarako. Adibidez, Cervantes-ek Lyon duen zentroko Gabriel Aresti bibliotekaren inaugurazioan izan zen, baita beste herrialde askotako egoitzetan ere, euskararen eta Euskal Herriaren berri zabaltzen.

Patxi Salaberrik esan zuenez, «ez zion, edozein aitzakiarengatik bileretara, bilku-

retara joateari utziko, ezta eri egon den azken urte hits honetan ere». Henrikek berak sarrera-hitzaldian adierazi zuen «euskaldun batek izan ahal duen ohore handienetako bat» zela euskaltzain oso izatea. Eta halaxe jokatu zuen, azken unera arte.

Patxi Uribarrenek hartu zuen Henrikek utziriko lekua.

## MAISUAK

Euskal kulturari loturiko pertsonaia handiekin harreman estua izan zuen: Julio Caro Baroja, Koldo Mitxelena (urtetan nagusi izan baitzuen), Jose Migel Barandiaran (harekin ibili baitzen zenbait arkeologia-indusketatan, hala nola Diman, Albainan eta Lañun), Odon Apraiz ohorezko euskaltzaina, etab. Astean behin (larunbatetan, zehazki) Apraizen etxera joan, eta orduak pasatzen zituen han: ikusmena galtzen hasia zen, eta Henrikek egunkariak irakurtzen zizkion, hone-taz eta hartaz mintzatzen ziren, eta ohean etzaten ere laguntzen zion. Apraizek biziki eskertzen zuen Henrikeren laguntza eta konpainia, eta alderantziz ere.

Manu Ruiz Urrestarazu euskaltzainak hurreman horren berri ematen digu, Henrikeren sarrera-ekitaldiaz ari dela: «Odon Apraiz Buesa euskaltzain urgazle eta oho-rezkoa Areto Nagusian genuen, gurekin batera, Henrikek berak Odonen etxetik haraino lagunduta etorria. Ikustekoa zen zer begirune izaten zuen beti Henrikek adinezko jendearekiko».

Asko ikasi zuen Henrikek maisu haiengandik, eta beste askorengandik; haiekiko esker ona adierazteko, maiz idatzi zuen haien bizitzaz eta lanaz. Sarrera-hitzaldian ere mintzatu zen horri buruz: «Ezer baldin bagara, gure aurretik euskaltzale suharrak izan direlako da, Euskal Herria bihotz-bihotzez maite izan duten jendeak, eta Euskal Herriaren alde lan egin dutenak. Horienganako nola ez agertu geure esker ona, nola ez hartu haintzat denbora latzetan egindako lan gaitza! Areto hontaraino Odon Apraiz euskalari eta euskaltzale handia ekarri dut besalagun. Eta neronek ekarri nahi izan dut, inolako ordeko gabe. Berak eraman nau askotan besalagun euskal ikerlanetan gidari ezin trebeagoak. Eta orain, begiak ia



Odon Apraizekin


zeharo lausotu zaizkionean, agertu nahi izan diot berari ere neure esker ona».

## IDAZLE ETA IKERTZAILE

Artikulu ugari eta zenbait liburu argitaratu zituen. Pertsona- eta leku-izenak, euskararen historia eta euskal testuak zituen, besteak beste, gai gogokoenak. Haren bibliografia osoa zerrendatzeak luzeegi joko lukeenez, zenbait lan baizik ez ditugu hemen aipatuko, jorratu zituen gai eta estilo ugarien erakusgarri:

1979an, *Araba Zabaldua* liburua, Alberto Schommer argazkilariarekin batera.

1993an, *Landazuri* aldizkariaren sorreran parte hartu zuen, eta haren zuzen-



daria izan zen 13 aletan zehar (14.a argitaratzeko prest utzi zuen). Arabako *El Correo* egunkarian astean behin argitaratzen den «Nuestro patrimonio» atalaz ere bera arduratzen zen.

1997an, Federico Baraibarrek Julio Urkixori 1906tik 1917ra bitartean idatzirik gutunak argitaratu zituen, Federiko Krutwigen omenaldi-liburuan.

1998an, *Arabako euskarari buruz jakin behar dena* liburua; urte berean atera zen *Arabako euskara. Ikerketak eta testuak*, Koldo Zuazorekin batera egina, eta, orobat, Gerardo López de Guereñuren *Voces alavesas*en bigarren argitaraldia, edizioa eta hitzaurrea berak egin baitzituen.

1999an argitaratu zen *Vasconiana*, René Lafonek (1899-1974) euskalaritzaren ere-

muan egin zituen artikuluen bilduma; hautaketa-lana Knörrena izan zen.

2001ean, Pedro Yrizarren *Memorias de un vascológico* lanaren edizio oharrez hornitua argitaratu zuen, haren seme Iñigo Yrizarrekin elkarlanean.

Idazlan zientifikoaren artean honako hauek aipa ditzakegu: «Nombres de persona en el País Vasco: cuestiones históricas y de normalización», *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian argitaratua, eta «Astronomy and the Basque Language», biak 1999koak, eta «Das baskische Personennamensystem» (alemanez), 2007koa.

Liburu eta aldizkari zientifikoetatik landa ere, artikulua ugari argitaratu zituen prentsan, jakintza ahalik jende gehienari helarazteko helburuarekin. Esate baterako,





Margolarien begiz

berripaperetan dozenaka zenbat daitezke kultura-munduko pertsonaiei buruz argitaratu zituen idatz-irudiak —eskuarki hilberriak—: Mitxelena, Caro Baroja, Barandiaran, Coromines, Coseriu, Plácido Múgica eta abarrenak, baita euskal edo erdal historia eta kulturarekin zerikusia duten beste artikulua batzuk ere. Lan horietan ere zehaztasun handiena izan zuen beti arau eta jokabide, irakurterraztasunari eta atseginari kalte egin gabe.

Bestalde, *Lur* entziklopediarako hizkuntza-aholkularia izan zen. *Gran Enciclopedia Galega*-ko «éuscaro» artikulua egilea, eta *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco*-n (Auñamendi argitaletxea) «Vitoria» artikulua egilea.

2003an «Zuri, euskal gazte horri» olerki luzea argitaratu zuen (besteak beste, Eus-

kal Idazleen Elkartearen *Hegats* aldizkarian eta *Revista de Occidenten* agertua). Bere kezka nagusiak bildu zituen hor gure bidegileak: euskara, Herriaren eta kulturaren egoera, indarkeria, ingurumena...

Zenbait sari jaso zituen, hala nola Alemaniako *Kirche und Leben* astekariarena, Joxe Azurmendiren poema baten alemanezko itzulpenagatik, eta Cánovas del Castillo Fundazioarena, «Cánovas del Castillo y Vasconia» izeneko lanagatik. *El Correo* egunkariaren kazetaritza-lehiaketan accesita lortu zuen, J. M. Barandiarani buruzko artikulua batengatik.

Bestalde, ohiko epaimahaikidea zen Espainiako Kultura Ministerioaren Litera-



Iruña-Veleiako aztarnategian

tura Sarietan eta Irun Hiria Literatura Sarietan.

Henrikeren ikerketak zenbait ezkutu argitu ditu, hala nola Biasteri izenarena, edo Baratziart eta Betolatza idazleen sorlekua.

2006ko udaberrian, Iruña-Veleiako aztarnategian III. eta VI. mende arteko idazkunak (horietariko asko euskaraz) agertu zirela-eta, aholku-batzorde zientifiko bat eratu zen. Aurkikuntzen egiazkotasunaren defendatzaile nagusienetarikoa izan zen Henrike, geroago hasiera batean proposatu zen datazioarekiko zalantzak agertu bazituen ere. Zoritxarrez —edo zorionez—, ez zuen aferaren amaiera ikusterik izan: 2008aren hondarrean, eta batzordekideen txostenetan oinarriturik, idazkunak faltsutzat jo ziren, lerro hauek idazte-

ko unean galdera askok erantzunik gabe jarraitzen badute ere.

Renoko Euskal Mintegiak gonbidaturik, 2007-2008 ikasturtean Nevada Renoko Unibertsitatera joateko izendatu zuten. Eritasunak zapuztu zion beste egitasmo bat izan zen hura...

Patxi Salaberrik beste bat aipatzen du: «Ezagutza zabala zuen gai anitzetan, eta bereziki onomastikan; [...] ICOS (International Congress of Onomastic Sciences) delakoaren biltzar guztietan parte hartzen zuen aspaldidanik eta aurten [2008an] Toronton eginen denera ere joan gogo zuen, euskal izendegiaren goiti-beheitiak munduan barna zabaltzera».

Hil ostean ere haren zenbait lan argitaratu dira berriki: besteak beste, Micaela Portillaren idatz-irudia, historialariaren omenezko liburuan agertua, eta Aragoieraren II. Biltzarrean euskara batuari buruz aurkezturiko txostena. Eta oraintsu argitaratu dira, halaber, *Gasteizko Toponimia I* eta *II* liburuak, hamar bat urteko lanaren emaitza, Henrike izan baitzen, hil arte, lan-taldearen zuzendaria (Jose Luis Lizundiak bete zuen gero zeregin hori).

## ETNOGRAFIA

Gaztetatik sartu zen Henrike etnografian, Jose Migel Barandiaranen eraginez eta Manuel Iradier txangolari-elkartearen eskutik. Arabako Etniker taldearekin lan egin zuen, eta *Ohitura. Estudios de etnografía alavesa* aldizkariaren sortzaileetarikoa izan zen.

Hitzak eta esapideak ehunka biltzen zituen, Kuartangon (Jokanon batez ere, hangoa baita Juliana Ruiz de Zarate, Henrikeren berriemaile garrantzitsuenetarikoa), baita Eharin ere, emaztearen herrian. 1659ko ordenantzak aurkitu, eta ikertu eta argitaratu zituen. Garai hartan hartu zuen, beharbada, poltsikoan beti ohar-liburuxka bat (edo gehiago!) eramateko ohitura, zer entzun-irakur ere: hitz edo esapideren bat, leku-izen bat, hurrengo artikulurako daturen bat...

Hitzak, toponimoak eta ohiturak berreskuratzeko zaletasun horrek bultzaturik, 1975ean zeru-lurrak astindu zituen, haren adiskide Patxo Fernández de Jauregi eta beste zenbaitekin batera, Zalduondoko (Araba) inauteria biziberritzeko. Harezkero, urtero joaten zen Henrike Zalduondora (mozorroturik, jakina!).



Etniker taldearekin, 2006an



Jokanon, 1972an



Zalduondoko inauterian



# Kultura-sustatzaile

Edozein lekutan oharrak hartzen

**U**nibertsitatea eta Euskaltzaindia zituena, beraz, lan eta ogibide nagusi. Hala ere, beste hamaika erakunde eta ekimenetan bete-betean sartua zegoen. Haren amak maiz esaten zuen Henrikek lanbide —ezen ez, nahitaez, ogibide!— asko zituela.

Gaztetan politikan ibilia bazen ere —besteak beste, ESBren Arabako diputatugaia izan zen 1977ko hauteskundeetan, hautagaitza horren berri egunkarien bidez jakin omen bazuen ere— laster bideratu zituen indar guztiak kulturgintzara. Hala, 1975ean, haren anaia Xabierrekin, Alberto Garaterekin eta Jorge Lamyrekin batera, jendea eta dirua biltzea lor-

tu zuen, Gasteizko Axular liburu-denda sortzeko.

Arabako ikastolen sorreran ere bere harri-koskorra jarri zuen: 1977an, Ehari herriari loturiko jende multzo batek —Henrike bera eta Estarrona anaiak tartean— han ikastola bat sortzea adostu zuen. Taldearen suhartasunaz gainera, egitasmoak administrazio-batzarraren babesarekin izan zuen, Joaquín Landa alkate zela, herriko nesken eskola ohia eman baitzuen ikastola sortzeko.

Eusko Ikaskuntzako bazkide zen 1978az geroztik, eta erakunde hartan idazkari izan zen, baita *RIEV* aldizkariaren erredakzio-batzordeko kide ere. Euskalerria-

ren Adiskideen Elkarteko kide osoa ere bazen, 1986az geroztik.

Sancho el Sabio Fundazioaren bultzatzaile nagusietariko bat izan zen; izan ere, mundu osoko 300 burulangileren sinadurak biltzea lortu zuen euskal historia eta kulturari buruzko biblioteka garrantzitsuenaren bizi-  
raupena bermatzeko. *Sancho el Sabio: euskal kultura eta ikerketa aldizkariaren* aholku-batzordeko kide zen. Sancho el Sabio Fundazioak 2009an omenaldia egin zion Henrikeri, eta, ekitaldi hartan, gainera, euskaltzainaren bibliografia aurkeztu zen.

1984an Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia*-ri jarraipena emateko eratu zen Asociación Internacional de Bibliografía Vasca elkartearen sortzaileetariko bat izan zen. Hasiera-hasieratik idazkaria izan zen, harik eta 1992an elkarte utzi behar izan zuen arte. Handik gutxira desagertu zen *Eusko Bibliographia*.


1992an, beste zenbait lagunekin batera, Landazuri elkarte sortu zuen, eta izen bereko aldizkariaren zuzendaria izan zen. 2008an, hil baino astebete lehenago, oho-  
rezko lehendakari izendatu zuen elkarteak.



RSBAPen bilera batean, 2005ean

Arabako Foru Aldundiaren Euskararen Aholku Batzordeko kide izan zen, Fede Verástegui kultura-diputatu zelarik.

Kultura eta kultura-ekitaldiak hiriburuetatik herrietara zabaltzeko helburuarekin, Aramaioko Udako Ikastaro mamitsuak sortu zituen. Sei urtez egin ziren, 2007ra arte, Henrike zela antolatzaile eta zuzendari, eta zazpigarren edizioa ere prestatzen hasi zen, baina bertan behera gelditu zen.



Bibliografia



Aramaioko Ikastaroan, 2007an. José María Tapiz, Félix Maraña, Henrike Knörr eta Santiago de Pablo, zenbait parte-hartzaileekin

2006az geroztik, Jose Migel Barandiaran Fundazioaren Batzorde Zientifikoko kidea zen.

2008ko abuztuan Gasteizko Urrezko Domina jaso zuen Henrikek, Patxi Lazcoz alkateak proposatu, eta Bozeramaileen Batzordeak aho batez onarturik.



Henrike Knörr Aretoa



Gasteizko urrezko domina, 2008

Bera izan zen, bestalde, Euskaltzaindiak 2008an Iruñean egin zuen XVI. Nazioarteko Biltzarraren sustatzailea, eta antolatzailer nagusietarikoa.

Urte hartako abenduaren 2az geroztik, gure bidegilearen izena du Euskaltzaindiak, Eusko Ikaskuntzak eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak Gasteizen duten ekitaldi-aretoak.

Gasteizko jaietako, San Prudentzioko eta Eguberriko pregoilari ere izan zen. AEKren Korrikaren 9. edizioan, Gasteizen amaitzen zen lehenengo aldiari, gure euskaltzainak eraman zuen lekukoa helmugara.



Korrikaren lekukoarekin, 1995ean

## IZENA

Pertsona-izenak zituen, besteak beste, aztergai, eta, izan ere, harenari buruz ere bada, bai, zer esanik: Enrique José Manuel izenaz bataiatu zuten. Hala ere, lehenengo osagaia baino ez zuen erabili, idazkera desberdinekin, aldian aldi-ko irizpideen arabera: Enrike, Endrike, Hendrike, eta, azkenik, Henrike, Euskaltzaindiak hala finkatu baitzuen izen horren euskal ordaina. Dirudien baino esanguratsuagoa da hau, jendeak ez baitu —adin batetik aurrera— besterik gabe bere izena aldatzen, batez ere —Henrikeren kasuan bezala— aldaketak ondorio nabarmenak baldin badakartza berekin: izan ere, ordura arteko sinadura ere aldatu behar izan zuen. Bestalde, bere lehen idazlanetan ezizenak ere erabil-



Gaztetan, haien tandem famatuarekin

tzen zituen: *Babazorro*, *Kantoi-ibiltari*... Horien artean, *Daniel Ibargoiti* izan zen maizen baliatu zuena. Argitaraturiko azken artikuluen berri emateko, jakina da latinez idazten zituela mezu elektronikoak, eta, halakoetan, Henricus Knoerr forma erabiltzen zuen izenpean.

Ponte-izenaren gorabeherak eta abizenaren idazkera direla eta (denetarik ikusi da: Knor, Kenerr...), ez da erraza, gero, bibliografia, hemeroteka eta abarretan haren arrastoari jarraitzea.

Horri buruz ere aipamentxo bat egin zuen Satrustegik 1978an: «Abizena zitzaigun zail eta arrotz. Oroitzen al zara nola ahozkatu galdezka ginabiltzala, duela urte gutxi? Orduan zen hori». Orduan eta orain:



Zaldiaranen, Urteberri-egunean

harrigarria bada ere, asko dira, kazetari batzuk barne, Henrikeren izen-abizenak behar bezala idazten ikasi ez dutenak.

## ZALETASUNAK

Bizikleta maite zuen, bai kirol egiteko (zenbat aldiz igo ote zuen Zaldiaran mendatea!), eta bai garraiobide gisa: gaztetan tandemez mugitzen zen, eta aspalditik bizikletaz joan ohi zen Fakultatera. Tenisean ere gustura aritzen zen; Antoni Peris valentziar irakaslea izan zuen azken urteetan aurkari.

Mendizalea ere bazen: ia igandero egiten zuen txangoren bat, eta, ahal zuen guztietan, Landazuri elkarteak antolatutako kultura-irteeretara joaten zen.

Musikazale handia, nekez onartuko zuen etxean zituen Beatlesen binilo haiek berarenak zirela. Musika klasikoa zuen lagun, goizetik arrats, autoan zein etxean, liburu artean ematen zituen ordu luzeetan.

Izkirimiriak kontatzea atsegin zuen, hala-holako kontatzailea izan arren: kontatzen hasi eta beti hasten zen barrezka, bukatu ezinik. Ezagutu zuten guztiek «sufritu» behar izan dute, esate baterako, ardi zuri eta beltzen kontakizuna.

Oroz gain, ordea, liburuak zituen zaletasunik handiena. Irakurle asegabea zela esatea ez litzateke nahikoa izango: egunero bospasei egunkari erosten zituen, eta, besteak beste, *Die Zeit* astekari alemana, *Avui* egunkaria eta *Herria* astekaria jasotzen zituen etxean. 15.000tik gora liburu zituen, gehienak euskal gaietara eta hizkuntzalaritzari buruzkoak (500 bat hiztegi tartean), baina baita beste gai askotarikoak ere: historia, filosofia, artea, atlasak...





# Heriotza

Hilarria

**2**007ko maiatzean minbizia diagnostikatu zioten. Ospitale, mediku, ebakuntza eta kimioterapia-saioek (azkenekoetara, Jean Moulinen biografia eramaten zuen irakurgai) ez zioten, ordea, lanerako gogo-indarririk kendu. Gizon baikorra zen Henrike, eta baikortasun horri eutsi zion, unerik zailetan ere.

2008ko apirilaren 30ean eman zuen azken hatsa, emaztea eta hiru seme-alabak (Eneko, Garikoitz eta Iruri) ondoan zituela. Hileta-elizkizuna, jendetsu eta hun-kigarria, Gasteizko Pilarreko Amaren parrokia-elizan egin zen. Maiatzaren 2az geroztik, Arabako hiriburuko Santa Eli-

sabet hilerrian datza Henrike, kanposantuko Tomas Zumarraga dohatsuaren kalean. Hilarria haren adiskide Patxo Fernández de Jauregik diseinatu zuen, eta Jose Antonio Salazar apaiz eta etnografoak zizelkatu.

Lasai joan zitzaigun Henrike, bere bilobak (Beñat txikia eta Elbe jaioberria) zaindu eta koskortzen ikusteko aukerarik izango ez zuen aitona gaztearen tris-turarekin, baina egin beharrekoa egin zuenaren lasaitasunarekin: bizitza osoa euskarari, kulturari, familiari, Euskal Herriari eta, batez ere, Gasteiz eta Araba osoari eman zion gizon onaren lasaitasunarekin.



Beñat bilobarekin, soziedade batean, 2008ko martxoan

Satrustegik hitz goxo hauek eskaini zizkion, 1978an, Henrikeren emazteari: «Ez



Elbe biloba jaioberriarekin (Alcoi, 2008/01/25)

harritu, Txari. Bihotzaren zimiko bat Euskal Herriarendako du zure senarrak. Hori du bigarren amodioa, zu zarelarik lehenena». Henrikeren heriotzak, beraz, bi alargun utzi zituen. Baina euskararen zeruan utzi duen lorratza ez da erraz itzaliko.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzogatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Txari Santiagori
- Jose Maria Satrustegi zenari
- *El Correori*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga  
Argitaraldia: 1.a, 2009ko abuztua  
Ale-kopurua: 2.300  
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila  
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz  
Argazkilaria: Edorta Sanz  
Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.  
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao  
Inprimaketa: Grafo, S.A.  
Cervantes etorb., 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)  
ISBN: 978-84-457-2983-0 (Lan osoarena)  
978-84-457-2987-8  
L.G.: BI - 2283-09

# BIDOGUILLEAK



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco